



Oharra: irudia aldatu eta barruan agertzen diren kontzeptuak mantendu

EHI: INKLUSIOARI BURUZKO MARKOA

1. IKUSPEGI HISTORIKOA eta LEGEDIA

Eskola Inklusiboaren esparruan adierazten den moduan, (*Aniztasunari erantzuteko Plan estrategikoa, Hezkuntza Saila; Heziberri 2020 Plana, Hezkuntza Saila*), hezkuntza inklusiboa foro eta deklarazio askotan bultzatu da azken hamarkadetan. UNESCOk 1990an lehenengo aldiz inklusibitate kontzeptua adierazi zuenetik bide luzea egin da aniztasunari erantzuteko kontzeptualizazioan. Haur guztiek hezkuntza jasotzea bermatzen du eskola inklusiboak, bi printzipiotan oinarrituta: **ekitatea eta bikaintasuna**. Honek esan nahi du kultura, politika eta jarduera inklusiboak sortu eta bultzatu behar direla. *Abenduaren 22ko 236/2015 DEKRETUAN Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma* zehazten da eta bertan aukera berdintasunaren aldeko eskola inklusiboaren baitan **ikasleen aniztasunari arreta** ematea agertzen da, 37. artikuluan Aniztasunari erantzuteko neurriak zehaztuz.

Erresuma Batuan urte batzuk lehenago *Warnock informea (1978)* aniztasuna ulertzeko moduan eta horren trataeraren ikuspegian mugarri bat izan zen. Informe hartan azaltzen zen lehenengoz hezkuntza, ondasun komuna dela, pertsona orok hezkuntza jasotzeko eskubidea duela eta hezkuntzaren helburuak eta beharrak komunak direla haur guztientzat. Behar bereziak laguntza "continuum" bat modura ulertzen da, denbora bateko laguntza ematek laguntza iraunkorra ematera doana, eta **laguntza hori curriculum arruntaren barruan kokatzen da**.

Geroago *Salamanca Adierazpenak (UNESCO, 1994)* ikasle guztiak kontuan hartu behar direla aldarrikatzen du, hauen egoera fisiko, intelektual, sozial eta emozional anitzei erantzun behar zaiela haien arrakasta bilatuz. Hezkuntza inklusiboa terminoa ia aldi berean sortu zen, 1990ean hain zuzen ere, UNESCOren nazioarteko foroan guztiontzako hezkuntzaren ideia sustatu zen, hezkuntza formalaren sistemaren barruko aniztasun guztiari erantzuna emanez. Une horretan ekitateaz ere hitz egiten da, haurrek hezkuntza-aukerak eskuratzeko dituzten oztopoak ezagutzeaz eta oztopo horiek gainditzeko behar diren baliabideak zein diren zehazteaz. Horrela, ikasleak "normalizatzeko" joera duen errehabilitazio-eredu batetik **hezkuntza inklusiboa** defendatzen duen eta horretan oinarritzen den gizarte-eredu batera igarotzen gara, "Ikasleen aniztasunarekiko errespetu gisa ulertuta", ikasle "bereziki" baztertzearen ordainetan. (*Echeita, 2006, 91. or.*)

Mel Ainscow eta Tony Boothek 1998an argitaratu zuten *Index for inclusion* lehenengo gida eta 2015ean hirugarren bertsioa atera zuten. Haien esaten dutena zera da, **balore inklusiboek** ikaste-irakaste prozesuaren barruan dauden **elementu guztiak zeharka konprometitzen dituztela**, ikasten ari diren pertsona guztiak kontuan hartzen dituen curriculum diseinatzea eta eraikitzea eskatuz. Ikuspegi inklusiboak hezkuntza eta gizarte hobetzea bilatzen du, eta parte hartze demokratikoarekin lotuta dago. Parte hartzeak berekin dakar hezkuntza sistema aldatzea, diskriminazioak baztertzeko eta aniztasunari erantzuteko eskola baldintzak hobetzea, pertsona guztiak berdin baloratuak sentitzea ahalbideratzen duten estrategien bidez.

Bere 3. argitalpenean, *Index for inclusion* gidak balore batzuk aipatzen ditu bereziki, egitura, prozedura eta jarduera inklusiboak ezartzen lagundu dezaketelakoan. BERDINTASUNA, pertsona guztiak baliosten dira, baita bizi-baldintzen eta desberdintasun ekonomikoak murrizten dira ere; haurrek eta gazteek kalitatezko hezkuntza jasotzeko ESKUBIDEA; kultura anitzen arteko KOMUNITATEA;

JASANGARRITASUNA, etorkizuneko belaunaldien ongizatearekiko konpromisoa; eta beste batzuk, inklusio kontzeptua arlo akademikoa baino askoz ere zabalagoa dela nabarmenduz.

90 hamarkadaren hasieran, ikasteari buruzko ezagutzan eta ikerketa neurozientifikoaren ekarpenetan oinarrituz eta aurrerapen teknologikoetatik baliatuz, CAST elkarteak (Center for Applied Special Technology) **Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalaren** (IDU) paradigmatikoen printzipioak eta praktikak ikertzen eta garatzen hasi zen.

Diseinu Unibertsala (DU) ez da hezkuntzaren arloko jatorrizko kontzeptua. Arkitekturaren arloan sortu zen 1970eko hamarkadan Estatu Batuetan. Ron Mace izan zen, Diseinurako Unibertsalerako Zentroaren sortzailea, kontzeptu hau lehen aldiz erabili zuena, eta horrela definitu zuen: ondoren egokitu beharrik gabe, edozein pertsonak erabili ditzakeen produktuak eta inguruneen diseinua. Haren helburu nagusia eraikin eta espazio publikoak diseinatzea eta eraikitzea zen, erabiltzaile potentzialen sarbide-, komunikazio- eta erabilera-premien aniztasunari erantzuteko hasieratik pentsatuta.

IDUk 1990eko hamarkadan egindako ikerketetan du jatorria. Haren sortzaileek, David H. Rosek (garapenaren neuropsikologoa) eta Anne Meyerrek (hezkuntzan, psikologia klinikoan eta diseinu grafikoan aditua), ikerketa-taldeko gainerako kideekin batera, IDU aplikatzeko esparru bat diseinatu zuten hezkuntzan, ikaskuntzari aplikatutako neurozientzian, hezkuntza-ikerketan eta teknologia eta baliabide digitaletan egindako azken aurrerapenak jasotzen dituen esparru teoriko batean oinarrituta. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalean oinarritutako curriculumak hasieratik diseinatzen da ikasle guztien beharrei erantzuteko.

Indarrean sartu berri den LOMLOE hezkuntza legeak inklusioari buruzko ikuspegi eguneratua jasotzen du, bere printzipioetan argi islatuz UNESCO eta umeen eskubideen araudiak, INDEX-ek proposatzen dituen esparruak eta Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala printzipioen ezarpena. Hezkuntza inklusibotik haratako, **gizartean indarrean dauden balore eta helburu inklusiboak** jasotzen ditu.

Jarrain Hego EHan azkeneko hamarkadeetan indarrean egon diren hezkuntza legeek jasotzen duten inklusioaren ikuspegiaren laburpena aurkezten dugu.

Inklusioarekin eta aniztasunaren trataerarekin zerikusia daukaten Espainar Estatuko legedia.


	LOE	LOMCE (LOEren modifikazioa arautzen duena)	HEZIBERRI	LOMLOE
--	------------	---	------------------	---------------

<p>XEDEAK</p>	<p>Herritar guztiekin beren gaitasun indibidualak eta sozialak, intelektualak, kulturalak eta emozionalak ahalik eta gehien garatzea lortu nahi da, beren beharretara egokitutako kalitatezko hezkuntza jasoz eta hezkuntzaren kalitatea eta banaketaren ekitatea bateratuz (aukera-berdintasun eraginkorra bermatuz eta behar diren laguntzak emanez, hala eskatzen duten ikasleei nola eskolatuta dauden ikastetxeei)</p> <p>Ikasleen aniztasunari eta horrek sortzen dituen zailtasunei erantzun behar zaie, ikasleak ikastetxeetan berdintasunez banatuz, hezkuntza-komunitateko kide guztien lankidetzan.</p> <p>Ikasleen nortasunaren eta gaitasun afektiboaren garapen osoa eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasun eraginkorra nabarmentzen dira, bai eta aniztasun afektibo-sexualaren aintzatespena eta desberdintasunen balioespen kritikoa ere, jokabide sexistak gainditzea ahalbidetuko duena.</p> <p>LOEk Europar Batasunak eta UNESCOk planteatutako hezkuntza helburuekin konpromiso sendoa agertzen du</p>	<p>Talentua aitortzea eta sustatzea hezkuntza gizarte-mugikortasuneko tresna nagusi bihurtzeko.</p> <p>Ikasleen trebetasunak eta itxaropenak askotarikoak direla onartzea da beren gaitasunetara egokitzen diren ibilbide desberdinak kontuan hartzen dituen hezkuntza-egitura bat garatzeko lehen urratsa.</p> <p>Desgaitasunari buruzko Europako Estrategiaren arabera, desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa bermatu beharko zaie.</p> <p>Curriculuma sinplifikatzeak eta ezagutza instrumentalak indartzeak, ikasleek beren gaitasunen arabera aukera ditzaketen ibilbideak malgutzeak bermatuko du ikasleak hezkuntza-sisteman gehiago irautea eta eta garapen pertsonalerako eta profesionalerako aukera gehiago izatea.</p>	<p>Pertsonaren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea dimentsio guztietan.</p> <p>Hezkuntzak Inklusio-printzipioa izan behar du ardatz.</p> <p>Aukera-berdintasunaren aldeko eskola inklusiboaren baitan, Oinarritzko Hezkuntzak lehenetsi egingo du ikasleek oinarritzko kompetentziak eskuratzea, aniztasunari arreta ematea, gertatu bezain laster hautematea eta tratatzea ikasteko zailtasunak.</p> <p>Emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da</p>	<p>Hezkuntza sistemaren ekitatea eta gaitasun inklusiboa indartzeko helburuarekin legeak ikuspegi batzuk jasotzen ditu:</p> <p>Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean ezarritakoaren arabera, haurren eskubideen betetzea eraginkorra bermatzea.</p> <p>Genero-berdintasuna hezkidetzaren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatuz eta genero-indarkeria prebenituz eta aniztasun afektibo-sexuala errespetatuz</p> <p>Ikasle guztiek arrakasta-bermeak izatea, zailtasunak detektatu bezain pronto errefortzu mekanismoak ipiniz.</p> <p>Garapen jasangarria.</p> <p>Kompetentzia digitalaren garapena</p> <p>Hezkuntza-inklusioa eta ikaskuntzaren diseinu unibertsalaren printzipioak aplikatuko dira.</p>
----------------------	---	---	--	---

	LOE	LOMCE (LOEren modifikazioa arautzen duena)	HEZIBERRI	LOMLOE
INKLUSIOA	<p>Hezkuntza-arreta arrunta ez den beste hezkuntza-arreta bat behar duten ikasleentzat beharrezkoak diren baliabideak ziurtatzea, beren gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien gara ditzaten.</p> <p>Arreta hori normalizazio eta inklusio-printzipioen arabera arautuko da eta hezkuntza-sisteman sartzeko eta irauteko berdintasuna bermatuko du.</p> <p>Aniztasunaren arretari ematen dio garrantzia Lehen hezkuntza: ikasteko zailtasunen prebentzioa. Bigarren hezkuntza: ikastetxeei antolaketa- eta curriculum-neurriak malgutasunez eta beren autonomia pedagogikoa erabiliz hartzeko aukera ematea.</p> <p>Ekitatea: ohikoa ez den hezkuntza-arreta eskaintzea hezkuntza-laguntzaren premia berezia dutenei, inklusioa eta integrazioa lortzeko baliabideak ezarriz. Inklusio: ikasle guztiaren garapena, ekitatea bultzatuz eta gizarte-kohesio handiagoa lortuz.</p> <p>Aniztasunarekiko arreta. behar bat da, hezkuntza-etapa guztiak eta ikasle guztiak hartzen dituen. Aniztasuna printzipio gis hartzea, ez gutxi batzuen beharretarako neurri gisa. Hezkuntza premia bereziak duen</p>		<p>Aniztasuna aitortu eta errespetatu, oinarrizko konpetenzien garapen goren lortzeko arreta espezializatu. Hezkuntza-premiak asetzea ingurune normalizatu eta inklusiboan.</p> <p>Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak garaiz hautemateko mekanismoak ezarri behar dira ikastetxeetan.</p> <p>Aniztasuna tratatzeko neurri orokorrak zehazten dira: espezialitateko profesionalak, bi irakasle gelan, tutoretza pertsonalizatua, metodologia-aldaketak, taldeak bikoiztea, eskola-ordu ez kanpoko laguntzak, banakako lan-planak, curriculum aberastea, aldatzea edo hedatzea, derrigorrezko eskolatzea beranduago edo lehenago hastea, edota eskolatzeko aldia malgutzera, ikasgaiak esparru antolatzea, ibilbideak eskaintzea, ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak, eskola osagarriko programak, eta berariazko hezkuntza-beharrak dituzten ikasleentzako bestelako erantzun espezializatuak.</p> <p>Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako curriculumaren egokitzapenak.</p>	<p>Hezkuntza Bereziko ikastetxeek arreta oso berezia behar duten ikasleak eskolatuko dituzte, eta laguntza eta prestakuntza emango diete ikastetxe arruntei. 10 urteko plana ezarri da, ikastetxe arruntek desgaitasunen bat duten ikasleak artatzeko baliabideak izan ditzaten.</p> <p>Curriculum-egokitzapen esanguratsuak haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta oinarrizko hezkuntzan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei zuzenduta.</p> <p>Eskolatzea urtebetez luzatzea: Haur Hezkuntzako bigarren zikloko azken ikasturtean eta Lehen Hezkuntzan..</p>

	<p>ikaslegoak urte bete gehiago eman ahal izango du.</p> <p>Hezkuntza inklusioa indartzeko Espainiako zeinu hizkuntzak gehitu dezakete beraien hezkuntza eskaintzan.</p> <p>Adimen gaitasun handiko ikasleei zuzendutako aberaste kurrikular planak kontuan hartuko dituzte.</p> <p>Beranduago eskolaratutako ikaslegoak bere beharretara ondoen egokitzen den ikasmilara sartzea ahalbidetuko da eta hizkuntzaren ezagutzetan edo oinarritzko ezagutzetan gabezi larriak dituztenentzako berariazko programak garatzea.</p> <p>Berariazko hezkuntza premiak duen ikaslegoaren identifikazio goiztiarra egitea, normalizazio, inklusio eta berdintasun ikuspegitik.</p>		<p>Gaitasun intelektual handiko ikasleen eskolatzea malgua izan daiteke, beren ikaskuntza-erritmorra egokitzeko.</p>	
--	---	--	--	--

Inklusio ikuspegia lege mailan definituta egon arren, egun oraindik gure hezkuntza praktika **inklusioa eta integrazio** eredu artean mugitzen da. Jarraian, ikuspegi horiek aniztasunaren trataeran eragiten dituzten bi testuinguruak alderatzen dira.



- Integratzea desberdintasuna onartzea da.
- *Inklusioa pertsonari harrera egitea da.*

- Integratzea hezkuntza-premiei buruz hitz egitea da, itxaropen txikiak piztuz.
- *Inklusioa parte-hartzerako, aurrerapenerako eta ikaskuntzarako oztopoei buruz hitz egitea da.*

- Integrazioa defizitean oinarritzen da.
- *Inklusioa ikasle guztiak ikasgelan garatzeko dituzten gaitasunetan oinarritzen da.*

- Integrazioa hezkuntza-erantzuna bereiztea da, ohiko gelatik kanpo, beste zeregin bat eginez eta gelan gutxitan parte hartuz.
- *Inklusioan ikaslea ohiko gelan gainerako ikaskideekin batera aritzen da, modu kooperatiboan lan egiten duten eta gelako ikasle guztiak laguntzen dieten bi irakaslerekin lan eginez.*
- Integrazioan haurra egokitu behar da hezkuntza-sistemara.
- *Inklusioan hezkuntza-sistema egokitzen da haurraren ezaugarrietara.*
- Integrazioan umearen normalizazioa bultzatzen da.
- *Inklusioan heterogenitatea ohikotzat hartzen da.*



Goiko irudiak laburbiltzen du ikuspegiaren bilakaera. Integrazio erduan, pertsona guztiak aintzat hartzen dira, ezaugarri anitzak dituzten pertsonak, tresna eta curriculum berdina eskaintzen zaie, beraz ez dira haien beharrianak asetzen.

Inklusioaren ikuspegitik, ekitatea erdigunean jarrita, curriculum eskaintza bakarra egiten jarraitzen da, pertsonen ezaugarriak kontuan hartuz egokitzapenak egiten badira ere. Urrats garrantzitsu bat eman arren, ikuspegi berdintzaile baten barruan kokatuta jarraitzen dugu.

Azkenik, gaur egun, eta LOMLOE legeak horrela planteatzen du, aniztasunari erantzuteko erantzukizuna curriculumaren diseinuan kokatzen da, Ikasteko Diseinu Unibertsala aplikatuz. Inklusio eredu honek ikasleen aniztasunari erantzuten dion curriculum eskaintza zabala eta malgua egiten du, errepresentatzeko, exekutatzeko eta inplikatzeko aukera anitzak eskaintzeaz gain, egon daitezkeen oztupoak ahalik eta gehien gutxituz. Modu honetan ikasleen ezaugarri eta beharrian anitzak kontuan hartzen dira geroko egokitzapen berezirik egin gabe.

2. Kontzeptualizazioa

Inklusio ikuspegiak giza taldeak dituen **aniztasun-adierazpen guztiak** aintzat hartzen ditu (linguistikoak, kulturalak, gaitasunak, sexu-identitatea, orientazioa eta generoari buruzkoak, sozioekonomikoak, etab.). Guztion eskubide-berdintasunean oinarrituz, norbere helburuak lortzeko oztupoak murriztu eta bakoitzari behar dituen tresna anitzak eskaintzea litzateke.

Gaur egun, hezkuntza inklusiboaren kontzeptuak irakurketa desberdinak ditu, eta horietako batzuk elkarren osagarriak direla. Aldi berean, partekatzen ez ditugun adiera batzuk ere badaude, hezkuntza bereziarekin identifikatzen dena edo bazterketa-arrisku handiena duten ikasle jakin batzuekiko kezkaekin soilik identifikatzen den adiera han zuzen ere.


Aniztasuna, bestalde, **aberastasun sozial eta pertsonaleko faktore** gisa hartu behar da, edozein gizataldetan aniztasuna araua da, ez salbuespena.

Hezkuntza inklusiboak ikasleen aniztasuna ulertzen, onartzen eta ikasle guztien garapen handiena bermatzen du ikasleen individualizazioa errespetatuz eta erraztuz. Inklusioa, prozesu bat da, beraz, ez da une jakin batean ikasle jakin batekin egiten den praktika isolatu eta zehatz bat. Hezkuntza inklusiboak hezkuntza-komunitate osoa, batera, aurrerantz joatea dakar. Ez du ikasle jakin batez hitz egiten, ikasle guztiez baizik.

Eskola inklusiboa oztupo guztiak hausten dituen eta benetako hezkuntza-ekitatea bermatzen duen eskola da, ikasle guztientzako benetako hezkuntza-aukera berdintasuna bermatzen duena, haien gaitasunak, arraza, kultura, sexua, ikasteko erritmoak, interesak eta abar edozein direla ere. Ikasle guztiek kalitateko hezkuntzarako aukera izatea bermatzen duen hezkuntza, ikasle guztiek bizitzarako kompetentziak ahalik eta gehien garatzen duen hezkuntza, ikasle **guztien eskola-arrakasta eta bikaintasun mailarik handiena** lortzea da.

Beharrezkoak diren erantzunak, egokitzapenak eta hezkuntza aukerak ematea aurrerapen akademiko eta pertsonala handiena lortzeko, hori mugatu dezaketen oztupoak ezabatuz.

Ikasleen **desberdintasunarekiko errespetua** eta onarpena, **malgutasunez** antolatzea eta guztientzako arrakasta-ikaskuntzak sustatzuk jarritako lehenengo ideiekin.



1

Inklusiboaren baitan, **eskola arrakastarako hainbat gako** hartu beharko genituzke abiapuntutzat, azken hamarkadetan hezkuntza-sistemei eta hezkuntza-jardunei buruz argitaratu diren ikerketak kontuan hartuz.

Identitate, kultura eta **giza multzo guztien** aitortzea eta onarpena. Aniztasunaren eta inklusioaren oinarria izango dira eta eguneroko eskola jardunaren abiapuntua izango dira.

Harreman pedagogikoan **itxaropen altuak izatea eta komunikatzea**. Ikasle guztien eskola arrakastaren inguruko itxaropen altuak izatea eta horiek esplizitatzea.

Ikaskuntza aktiboa. Egiten ikasteak, talde-lanak, sormenak eta arazoak konpontzeko trebetasunei lehenetasuna ematea, **ikas-testuinguruak** zabalduz.

Ikasle guztien inklusioa bermatzea, **ikasteko** eta parte hartzeko **oztopoak** identifikatuz eta **gutxituz**.

¹ *Jarduketa eta estrategia metodologiko inklusiboak* (Hezkuntza Saila).

Honekin batera prebentzioak eta esku-hartze goiztiarrak hartzen duten lehentasuna ikasteko zailtasunen aurrean. Ikasleak bere ikaskuntza mailarik gorenean garatu dezan horretarako duen aukera, parte-hartzea eta ikaskuntza zailtzen dizkioten oztopoak identifikatzea eta desagerraraztea.

Interakzioak **talde heterogeneoetan** ematea. Eskola tartean ematen diren interakzioak heterogeneoak izatea, bai ikasgelan baita beste esparru informaletan ere, sentsibilitate desberdinak dituzten pertsonen arteko interakzioa sustatuz.

Laguntza kontzeptuaren adiera zabaltzea, ohiko ingurune batean ikaste prozesua errazten duen gutzia laguntza modura ulertuz. Adibide batzuk honako hauek izango lirateke: berdinen arteko laguntza, autonomia bultzatzen duen laguntza, parte hartze aukerak handitzen duen laguntza, ikasleria guztiari laguntza eskaintzeko bi irakasleen arteko esku-hartzea gela barruan, espezialistak irakaslegoarekin batera ohiko gelan lanean aritzea, besteak beste.

Egoera bakoitzari egokitutako **doitze kurrikularrak** egitea, dibertsitatea eta irakaskuntzaren pertsonalizazioari erreparatuz, irakaskuntzaren pertsonalizazioa ahalbidetuko duten neurriak hartzea:

- Ikaskuntza **denbora malgutzea**.
- Ikasteko prozesuaren **aberastea eta bizkortzea**. Ikasle bakoitzari bere gaitasunek ahalbidetzen dioten sakontasunetik ahalik eta urrunen eta bizkorren iristeko beharrezkoak diren hezkuntza-baliabideak ematea.

Feedbacka. Ikasleei ikaskuntza prozesuan non dauden, zer ikaskuntza helburu duten, helburua lortzeko zer ahalegin diren beharrezkoak, erronkei nola egin behar dieten aurre eta nola egokitu behar dituzten eta nola hobetu dezaketen adieraztean datza eskola arrakastaren alderdi nagusietako bat. Honek guztiak ebaluazioaren ikuspegi zabalagoa eskatzen du, **ebaluazio hezigarria** izango dena, eta ez soilik kalifikatzailea.

Hezkuntza komunitatea eraikitzea; komunitatea osatzen duten guztien arteko parte hartzea sustatu, familia bereziki. Koordinazioa eta lankidetzak sustatzea kanpoko eragileekin, ikasleei ikaskuntza-esperientzia zabalagoa eskaintzeko (erakundeekin, enpresekin, osasun-zerbitzuekin eta abar), baita familiekin ere, ezarritako helburuak lortzeko (informazioa eman eta haiekin lankidetzan jardunez).

Irakasleriaren **formazioa** sustatzea. Etengabeko formazioa, hain gizarte aldakorrari hezkuntzaren erronkei erantzun eguneratua eman ahal izateko eta esku-hartzea hobetzeko helburuarekin.



3. HEZKUNTZA INKLUSIBORAKO INDEX GIDA

Inklusioarekiko konpromisoa ikastetxe baten **eguneroko egikeretan islatu** beharra dago, ikuspegi teorikotik haratago. 2011an *Hezkuntza Inklusiborako Gidaren* 3. edizioa berritua argitaratu zen helburu horrekin.

Gida honek ikastetxe baten **inklusio egoera aztertze**ko aukera ematen du, baita identifikatutako ahuleziak hobetzeko urratsak emateko eta baloratzeko adierazleak zehazteko ere. Gidak 3 eremu proposatzen ditu hausnarketarako: Ikastetxeko kultura, politika eta praktika inklusiboak.

- Ikastetxeko kulturak sortzea, ikas komunitate seguru, atsegin eta kooperatiboa sortzearekin lotuta dago; eta komunitateak dituen balore inklusiboak kide berrientzako eredu dira.
- Ikastetxeko politikak sortzea, guztiontzat den eskola eremua sortzean datza, aniztasunari eman beharreko politika eta antolaketa definitzen da.
- Praktika inklusiboak, eskola kultura eta politika inklusiboak islatzen dira eskolako jardueretan, guztiontzako curriculum diseinatuz eta ikaskuntza prozesuaren planifikazioa eta koordinazioa zehaztuz.

Ikastola bakoitzak INDEX gidan oinarrituta, inklusioari buruzko AMIA eta hortik eratorritako hobekuntza plana egitea izango litzateke aniztasunari erantzuteko plana diseinatzeko lehenengo urratsa.



2

² Guía para la educación inclusiva. Adaptación de la tercera edición revisada del Index for Inclusion

4. ESTRATEGIA INKLUSIBOAK

Azken hamarkadetan metatutako jakintza, eta gero eta ugariagoak diren ikerketen emaitzak kontuan hartuz, eguneroko hezkuntza praktikarako ikuspegi inklusibo batetik eta ebidentzietan oinarrituta esanguratsuak diren estrategien bilduma aurkezten da jarraian. Bilduma horretan agertzen ez diren beste hainbat estrategia aurki ditzakegu dokumentazio desberdinetan.

Horien artean, aniztasunari erantzuteko estrategia orokorrak daude, ikasleen aniztasunari, modu orokortuan, erantzuten laguntzen dutenak. Bestalde, berariazko strategiak daude, beharrian batzuen aurrean diseinatu beharreko estrategia propioak.

OROKORRAK	BERARIAZKO LAGUNTZA BEHAR DUTENAK	BESTE BATZUK
<ul style="list-style-type: none"> • Ikaste estilo desberdinak dituzten ikasleak. • Lan erritmo desberdinak dituzten ikasleak. • Interes eta motibazio maila desberdinak dituzten ikasleak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasteko zailtasunak dituztenak: dislexia, TDAH, diskalkulia, e.a • Mugako adimen gaitasuna duten ikasleak. • TEL duten ikasleak. • Adimen gaitasun handiko ikasleak. • Disfuntzio sentsorialak dituzten ikasleak • Espekto autista nahastea duten ikasleak. • Heltze moteltasuna duten ikasleak. • Hezkuntza sistemara berandu sartzen diren ikasleak. • Eskolako ibilbide edo baldintza pertsonal bereziak dituzten ikasleak. • Sozio ekonomikoki edota sozio kulturalki egoera behartuetan dauden ikasleak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Heldutasun maila desberdinetako ikasleak. • Egoera emozional desberdinetan aurkitzen diren ikasleak. • Familia eredu desberdinetako ikasleak. • Ideologia eta sinismen desberdinak dituzten ikasleak. • Orientazio eta identitate sexual desberdinetako ikasleak. • Elikadura desberdinetako joerak dituzten ikasleak. • Osasun arazo desberdinak dituzten ikasleak.

TALDE INTERAKTIBOAK

Ezaugarriak: Adin desberdinetako ikasleen arteko ikaskuntza jarduerak gauzatzean datza. Talde heterogeneoetan antolatuta, talde adina jarduera antolatzen ditu irakasleak. Halaber, jarduera adina heldu ditu, eta heldu bakoitza jarduera bat dinamizatzeaz arduratzen da (beste irakasle bat, beste esparru bateko profesional bat, senide bat, boluntario bat eta abar). Boluntarioak ikasleen motibazioa handiagotzen laguntzen duten profil desberdineko dinamizatzaileak izan daitezke.

Antolamendua:

- Jarduerak diseinatzeaz eta saioa kudeatzeaz arduratutako irakaslea da eta gainerako helduak beren taldea dinamizatzeaz arduratzen dira (interakzioa, laguntza eta argudiaketa sustatzen). Saioaren barruan, ikasle taldeak txandaka aritzen dira jarduera batetik bestera eta elkarri lagunduz aritu behar dute.
- Oinarritzko tresnak elkarriketa, gogoeta eta argudiaketa dira, eta heldua hori gauzatzeaz arduratzen da
- Taldeak heterogeneoak dira, 4-5 ikasletako taldeak. Maiztasuna asterokoa edo hamabosterokoa izan ohi da, jardueraren iraupena laburra (20 minutu inguruan)
- saioaren balorazioa honetan oinarrituz egion ohi da: interakzio mota, ikasleen jarduketak, jarrerak, portaerak, zeregina amaitu den, inork amaitu ez duen eta zergatik
- Jarduerak ikasleek ofizialki duten curriculum-mailakoak izan behar dute. Curriculum-desoreka dagoenean, jarduerak egiteko beharrezkoak diren laguntzak diseinatu eta emango dira.

Eragina: Ikaskuntza prozesua bizkortzen du, eskolako bizikidetza hobetzen du eta partaidetza sustatzen du. Ikasleen artean ezagutzak partekatzen dituzte, lankidetza eta elkarreragina ezinbestekoa bihurtzen da. Konpetentzia instrumentalak lantzen diren aldi berean, elkartasuna eta errespetua lantzen dira eta bizikidetza hobetzen da.

IKASKIDETZA

Ezaugarriak: ikasleen talde txikien erabilera didaktikoa da, parte-hartzea ziurtatu eta ikasleen arteko interakzioa sustatzen duen jardueraren egitura batean oinarritzen da, elkarren arteko kooperazioa abiapuntu hartuz .

Lan taldeeen osaera, oro har, heterogeneoa da gaitasunari eta errendimenduari dagokionez, baina zenbaitetan homogeenok ere izan daitezke. Talde heterogeneoek ikasleen autoestimua eta itxaropenak hobetzen laguntzen du, hala ere, dibertsitatea eta curriculum-distantzia oso handia denean helduaren laguntza handiagoa beharko da ikaskideen arteko lankidetzak nahi den emaitzak eman ditzan.

Ikasleek elkarrekin lan egiten dute beren eta taldekideen ikaskuntza maximizatzeko, honek beraien arteko harreman sozioafektibioetan ere eragina duelarik.

Lan-taldeen egiturak zehatz batek bermatuko du praktika honen helburuak betetzen direla.

- Helburu komuna: ikaskide guztiek helburu berbera izan behar dute, norbanakoaren ekarpena desberdina izanik ere.
- Elkarmenpekotasun positiboa: parte-hartzaile bakoitzaren ikaskuntzaren arrakasta gainerakoen arrakastari lotuta dago, guztiek helburua lortzen dute, ikasten dute eta ahalik eta gehien ahalegintzen direla bermatu behar da.
- Banakako erantzukizuna eta taldekoa: helburu komuna lortzeko banakakoak bere konpromisoa eta ardurak hartu eta beteko ditu beti helburu komunera begira.
- Pertsonen arteko eta taldeko trebetasunak: ikaskideekin lankidetzan jarduteko beharrezkoak diren trebetasun sozialak eta pertsonalak ere ikasi behar dituzte.
- Lan-taldeen ebaluazioa: elkarrekiko interakzioan eta guztion parte hartzean oinarrituz, konpetentzia kognitibo, prozedurazko zein jarrerazkoen lorpena (bai pertsonalak baita taldekoak) ebaluatzen dira.

Antolamendua. Lankidetzan aritzeko kontuan hartu beharreko alderdiak honakoak lirateke:

- Helburuari begira taldekatze mota aukeratu: oinarrizkoak, nohizbehinkakoak, adituenak, e.a
- Ikasgelako espazioaren antolaketa
- Taldearen funtzionamendu-arauak
- Taldeen barne-antolamendua, lan plana zehaztea eta berau aldizka berrikustea.

Eragina: Aniztasunari erantzuten, gaitasun pertsonalak, komunikatiboak eta giza gaitasunak garatzen ikasle guztien errendimendu akademikoa handiagotzeko estrategia egokia da.

BI IRAKASLEREN JARDUKETA GELAN edo KO-DOZENTZIA

Ezaugarriak: Aniztasunari aurre egiteko estrategia bat da. Bertan, bi hezitzaile egonda ikasleen beharrak hobeto ahalbideratzeko asmoz edozein arlotan aplikatu daitezkeen estrategia arrakastatsua da. Bi irakaslek batera lan egiten dute, dibertsitateari eman beharreko erantzunean eraginkorrak diren metodologiak eta ikasgelako ikasle guztien arretaren bitartez berdinen arteko ikaskuntza sustatzeko.

Irakasleek, alde zuzenetik, honako alderdi hauek adostu behar dituzte: interakzio gehiago sortzeko ekintza nola egingo duten, erabiliko duten metodologia, egingo dituzten zereginak eta jarduerak, espazioaren antolaketa, erabakitzen diren taldeen heterogeneotasuna bermatzeko irizpideak eta rolen banaketa.

Irakasle bakoitzak bere estrategia eta interakzio-modu propioak erabiliz hobeto erantzuten zaio ikasgelako dibertsitateari. Aldi berean, ikasgelako lankidetzaren eta elkarrekiko laguntzaren dinamikaren barruan ikasle jakin bati laguntza espezifiko ematea ahalbidetzen da.

Saio horiek taldekako lan-estrategiak sustatzeko erabiliko dira, eta azalpen magistralak gutxiagotuko dira.

Antolamendua:

- Ikastetxeko ordutegien antolaketan gelan arituko diren irakasleei koordinatzeko uneak aurreikusi behar dira, eta denbora eta espazio komunak baliatu behar dituzte zer zeregin egingo diren, zer material erabiliko diren, taldeetan txandakatuko diren, denbora nola kudeatuko den edota egindakoa nork eta nola ebaluatuko duen erabakitzeko.
- Zereginen antolaketa, irakasle bakoitzaren rola, ikasleen antolaketa eta denborak desberdinak izango dira zereginaren helburuaren eta irakasleen tipologiaren arabera.
- Irakasle espezialistek edo arlo desberdin bateko irakasleek ere elkarrekin aritzeak onurak dakartza, irakasle horien laguntza talde osoarentzat onuragarria izatea ahalbidetzen du eta balio handiko laguntza da ikasgelako irakaslearentzat.
- Ikasgela antolatzeko aukerak: irakasleek gainbegiratuko dituzten talde finkoetan antola daiteke edota taldeak eta zereginak saio berean txandaka daitezke. Jarduerak planteatzen direnean, irakasle bakoitza jardura batez arduratu daiteke, txandakatean jardura horiek egingo dituzten taldeak kontuan hartuta. Beharrezkoa den helduen gidaritzaren arabera, ikasleak bakarrik dauden taldeak eta beti irakasleetako bat duten taldeak konbina daitezke. Horretarako, beharrezkoa izango da taldeak heterogeneoak izatea, elkarrekiko laguntza eta askotariko azalpenak susta daitezken.

Eragina: Bakoitzaren erritmoa errespetatzea. Ikaslea protagonista eta aktiboa izatea. Jakin-mina asetzea. Uneoro agertzen diren zalantzak eta kezkek orientatzea.

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKETA

Ezaugarriak: ikasleak bere ikaskuntza prozesuaren arduratu hartzen duen irakaskuntza metodoa da. Benetako egoera eta arazoetan, ikasleen edo hezkuntza-komunitatearen ingurunearekin lotutako motibazio batetik, sortzen den disziplinarreko proiektua. Irakasleek, talde txikietan edo bakarka, egoera eta/edo arazo erreal batean planteatutako premiei erantzungo dien proiektu bat planifikatzen, sortzen eta ebaluatzen dute. Irakasleak bere ikuspegi propioetatik eta gainerako ikuspegiaren kontrastetik abiatuta errealitatea bere osotasunean interpretatzen du. Ikerketa-estrategiak eta estrategia kritikoak erabiliko dira, honek metodo zientifikoan oinarritutako eramango ditu, besteak beste.

Antolamendua: proiektuak gauzatzeko moduak anitzak badira ere, honako urratsak jarraitu ohi dira:

- taldeen antolaketarako eta proiektuaren planifikazioa
- proiektuaren asmoa erabakitzea, egoera edota konpondu beharreko arazo bati irtenbidea emateko ikerketa eta ikaste lana
- informazioa eta dauden aukerak bilatzea

- burutzeko lan-plan bat egitea
- diseinatutako plana burutzea
- egiten diren jarduera esanguratsuen ebidentziak gordetzea
- azken produktuaren komunikazioa
- metakognizioa (pentsamendu errutinak, hasunarketak, ko-ebaluazioak, auto-ebaluazioak, aktak jasotzea...)
- egindako lanaren ebaluazioa.

Eragina: Ikasteko motibazioan, lankidetzan, proiektuen plangintzan, gizarte gaitasunetan eta komunikazioan, erabakiak hartzea eta denboraren kudeaketan eragiten ahalbidetzen du.

TUTORIA PERTSONALIZATUA

Ezaugarriak: ikaslearen eta tutorearen arteko harreman pertsonal eta zuzenean oinarritzen da. Eskola-bizitzan txertatzen lagunduko dioten curriculum-alderdiak eta alderdi pedagogikoak kontuan hartuta, helburua da gizarte-inklusioa eta arrakasta akademikoa zaildu dezaketen egoerei aurrea hartzen eta/edo aurre egiten laguntzea. Hala ber, itxaropen handi positiboak sustatzea eta irakasleekin eta familiekin autokontzeptu akademiko eta pertsonal positibo bat sustatzeko lankidetzan jardutea dauka helburu gisa.

Ikasgelako tutorea edota irakasle taldeko beste irakasle bat izan daiteke tutoretza pertsonalaz arduratuko den pertsona eta bi aldeen artean harreman edo elkar ulertze ona izatea ezinbestekoa izango da.

Tutore pertsonalaren zeregin nagusia irakasle taldeak eta familiak adostutako plan pertsonalizatua koordinatzea da, haien artean adostutako helburuak eta konpromisoak, jarraipenaren denborak eta moduak eta ikasgelako tutorearekiko koordinazioa (zeregin hori beste pertsona batek egiten badu) bilduko ditu.

Antolamendua. Tutoretza horretarako, ikastetxeek proiektuetarako dituzten orduak erabil daitezke eta komenigarria izango litzateke ikastetxean figura horri buruzko plangintza adostea: noiz egin daitekeen (ikasleen irakastorduetan ez, ikas orduetatik kanpo), ikasleen denbora nola antolatu behar den, zer bide erabili behar diren, familiarekiko harremana eta irakasle taldearekiko koordinazioa, besteak beste.

Eragina: ikaslearen ikasketa prozesuan eta garapen pertsonaleko prozesuan bide lagun izaten, auto-erregulazioa eta norbere garapenean protagonista izaten laguntzen du. .

BERDINEN ARTEKO TUTORETZAK

Ezaugarriak: Berdinen arteko tutoretza ikaskidetzan oinarritzen da. Erlazio asimetrikoa (tutoreari eta tutoretza jasotzen duenari dagozkien roletatik datorrena) izango duten bikoteak sortzean datza; helburu bakarra eta partekatua dute (curriculumeko gaitasun bat lortzea) eta, hura irakasleak planifikatutako erlazio-testuinguruaren bidez lortzen da.

Antolamendua:

1. Prestaketa-fasea: ikasle tutoreen eta tutoretzapeko ikasleen hautaketa.
2. Tutoretza-saioen diseinua (edukiak, oinarrizko egitura, ebaluazio-sistema).
3. Bikoteen eraketa: ikasle tutorea eta tutoretzapekoa.
4. Ikasle tutoreen prestakuntza.
5. Ebaluazioa

Eragina: Ikasle biek aurrera egiten dute konpetentzia mailan rol desberdinak garatuz, maila akademikokoan zein pertsonalean.

IRAKURKETA PARTEKATUA

Ezaugarriak: Irakurtzeko gaitasuna garatzeko eta hobetzeko “Berdinen arteko tutoretzan” oinarritutako programa da, bikoteen osaketan oinarritzen dena. Familien inplikazioa ezinbestekoa da; etxeokak irakurketa tutore izaten dira.

Bsliabide multzo bat da programa bat osatzen duena. Jarduerak eta baliabideak oso egituratuta daude programaren hasieratik: hasiera eta bukaerako ebaluazioak, ikasleen auto-ko ebaluaziorako txantiloak... irakurketaren galderak.

Mota desberdinetako testu sailkatuak lantzen dira.

Antolamendua:

Gelakideen irakurketa maila neurtzen da testu baten bitartez eta emaitzen arabera, bikoteak nola egin erabakitzen da. Bikoteak homogeneoak (maila antzekoa dute eta hiru aste pasa ondoren, ikasle tutore eta ikasle tutorizatuaren rolen aldaketa egiten da) edo heterogeneoak (ikasturtearen zehar bi ikasleak rol berdinekin) izan daitezke.

Bikoteak adin desberdinen arteko ikasleen artean ere egin daitezke. Kasu honetan irakasle batek, ikasle tutoreekin, bikoteka elkartzen direnean irakurketa aurretik eta ondoren egin beharreko galderak lantzen ditu. Ikasle tutorea funtzioa duenak ikasle tutorandoaren irakurketa prozesua bideratzen du, haien garapen kognitiboa eta etapa kontuan izanik.

Irakasleak zein ikasleek autoebaluazioa eta ebaluazio fitxak betetzen dituzte.

Etxean, familiak prozesu honetan parte hartzen du jarraipena eginez, egindako jarduerak errepikatuz eta hobekuntzak indartzuz.

Eragina: Irakurtzeko gaitasuna hobetzea, irakurriaren ulermenean aurrera eginez, testuak ulertzeko norberaren autonomia garatzeko estrategiak landuz, berdinen arteko lan kooperatiboa bultzatuz eta familien inplikazioa sustatuz.

Bikotekide biek hobetzen dute irakur konpetentzia maila.

IKASLE ENBAXADOREA

Ezaugarriak: Ikasle enbaxadoreak gure hezkuntza sisteman lehen aldiz sartzen diren beste jatorri batzuetako ikasleari harrera erraztea du helburu. Ikasle enbaxadorea ikasle berriaren gelakidea izango da, bitartekaria izango dena ikastetxean eta taldean harrera egiteko ardurarekin.

Beste eskola- eta kultura-erreferentzia batzuk dituzten ikasle etorkinentzat, enbaxadorearen figura errealitate berriarekiko lotura izango da: ikastetxeko lekuak ezagutzen lagunduko die, ikaskide berriekin harremanetan jartzen lagunduko die, egokitzeko dituzten zailtasunak ulertzen saiatuko da, etab.

Enbaxadoreak boluntarioak izango dira, baina talde osoa txandaka aritzea komenigarria litzateke, guztion inplikazioa sustatu eta mendekotasun harremanak saihesteko; enbaxadore-lana egiteak ez du esan nahi nahitaez lagunak izan behar dutenik.

Antolamendua. Ikasle enbaxadoreak egin beharekoa alde aurretik prestatzea garrantzitsua da, batez ere iritsi berrientzat garrantzitsuenak eta premiazkoenak diren gai buruzko alderdietan zentratzeko.

Eragina. Ikaskideen arteko lankidetzak, enpatia eta laguntzaren beharra garatzen laguntzen du.



GIDARITZA-MENTORAZGOA

Ezaugarriak: ikastetxeko, hezkuntza-komunitateko edo unibertsitateko pertsona (gidari) batek egiten duen eta ikasle baten garapen pertsonala eta akademikoa bultzatzen duen tutoretza-lana da, bere bizitza proiektuan aurrera egiten laguntzeko asmoz.

Gidaria erreferentziazko figura bat da, eta adimen-gaitasun handiak dituzten zein arazo edo gabeziaren bat duten haurrei eta gazteei laguntzeko ekimenak, programak eta ikerketak babesten eta sustatzen ditu.

Gidariak bultzatzaile, eredu eta babes psikosozial gisa dihardu.

Ikasleak era aktiboan eta autonomoan ikasten du, eta edukiak, baliabideak, trebetasunak eta abar neurri handiagoan sakontzen dituzten ikaskuntzak egiten ditu.

Antolamendua: Mentore egokia aukeratu behar da lehenen ikaslearen interes edo kezketatik abiatuta, eta beraien artean konfiantzazko harreman estua sortu behar da. Ikastetxeak erabakitzen du nork egingo dituen gidari-lanak eta zer ikasle hartuko diren tutoretzapean eta elkartuko diren maiztasuna eta helburuak adostuko dira.

Gidariak galderaren metodoa erabiltzen du pentsatzen eta hausnartzen laguntzeko eta beren trebetasunak beren kabuz garatzeko tresnak jarriko ditu ikasleen esku; halaber, bere esperientzia helarazten du eta bere baliabideak eskaintzen ditu.

Ikastetxeak komunitateari eska diezaioke bolondres bezala ekimenean parte hartzeko. Halaber, "anaia/arreba/neba/ahizpa zaharra" erabil daiteke (ikasleak gidari edo eredu izango dituzten beste batzuekin jartzen dira harremanetan), edota "amabitxia-aitabitxia" (zeregin/curriculum-arlo/proiekturen batean laguntzeko).

Eragina: Aurrera egiten, helburuak eta erronkak ipintzen, motibazioa pizten eta ahalegina indartzen lagunduko dio. Ikasleak bere burua ikusiko du gidarian isalatuta eta honek inspiratu eta estimulatuko du beretik ahalik eta gehien emateko.

KONTRATU PEDAGOGIKOAK

Ezaugarriak: Kontratuak ikasleekin –eta haien familiarekin– denbora jakin batean egin beharreko lana negoziatzeko eta hartutako konpromisoak idatziz jasotzeko aukera ematen du, helburu kognitibo, metodologikoa edota portaera-helburu bat lortzeko.

Kontratuarekin arrakasta lortzeko baldintzak: elkarren arteko onarpena eta erabakitzeko askatasuna kontratuaren elementuen negoziazioa.

Antolamendua.

Kontratuaren atal guztiak adostu behar dira.

- Kontratu sinatzen duten alde biek onetsi behar dute.
- Kontratuak lan-plana (zereginak sekuentzializatuta) eta bitartekoak jaso behar ditu.
- Lortu nahi den helburua jaso behar du kontratuak, bere lorpen adierazleekin.
- Hartutako konpromezuen jarraipena egin behar da.
- Kontratuaren arrakasta baloratu behar da, helburuen lorpen adierazleen bidez.

Lortu nahi diren helburuen eta inplikaturako eragileen arabera, honako kontratu hauek daude: errekupeazio-kontratuak, banakako negoziazioa, gatazkak konpontzeko kontratuak, proiektu-kontratuak, ebaluazio-kontratuak, taldeko kontratu kolektiboak.

Eragina. Ikaslearen autoerregulaziorako tresna lagungarria da, heldu baten gidaritzapena egiten dena. Parte hartzaileen inplikazio pertsonala eskatzen duen neurrian, lortu nahi diren helburuei begirako motibazioan modu positiboan eragiten du. Helburuak eragile guztien artean partekatzen direnez (horrela erabakiz gero) eremu desberdinetako pertsonen inplikazioa lortzen du (irakasle, ikasle zein familia), ikasketa orokortuagoa izanik.

GAMIFIKAZIOA

Ezaugarriak: jokoetan erabili ohi diren estrategiak hezkuntza-ingurunean erabiltzea da, ikasleen trebetasunak esperimentazioaren eta jokoaren bidez eta egungo teknologiak ematen dituen aukerak baliatuz, ikaskuntzak errazteko asmoz. Jolasteak eta dibertsioak ematen duten esperientzia positiboa erabiltzen du, ikaskuntza esanguratsuagoak eta funtzionalagoak bultzatzeko.

Antolamendua: Dinamika ludikoaren baitan eskuratu beharreko ikaskuntzak antolatzen dira:

- Dinamika, probak eta jokalariei eta osagai motak (izenak, rolak, ezaugarriak eta abar) zehazten dira.
- Arau argiak eta lortu beharreko helburuak zehazten dira.
- Probetan lortu beharreko sariak edo puntuak zehazten dira.
- Egiten duten aurrerapena neurtzen da, emaitzak indartzeko edo prozesua doitzeko.

Eragina: Jokoak, hezkuntza-esparruan, autonomia, sormena, erantzuteko ahalmena eta arazoak konpontzeko trebetasuna hobetzen ditu, lankidetzaren lana, motibazioa eta interesa sustatzen ditu eta arazo errealeen simulazioak egiteko aukera ematen du.

IKUSIZKO PENTSAMENDUA IKASKUNTZAN

Ezaugarriak: Visual Thinking izenekoa lan-metodologia bat da, eta marrazki eta testu sinpleen eta ikusizko gramatikaren funtsezko beste elementu batzuen (konektoreak, espazioaren antolaketa, edukien hierarkizazioa eta abar) bidez errealitateaz jabetzea eta errealitate hori irudikatzea du helburu. Errealitatera hurbiltzeko metodo bat da, eta ideiak ikusizko tresnen bidez ikustea, aztertzea, antolatzea eta irudikatzea ahalbidetzen digu. Pentsamenduak antolatzeko eta modu eraginkorrean komunikatzeko modu bat da.

Antolamendua: Visual Thinkinga hezkuntza-maila guztietan askotariko pertzepzioei eta adierazpenei erantzun egokia emateko erabil daiteke:

- Eskolatzearen lehen urteetan, ikusizko mapa sinpleak, ideiak eta kontzeptuak sintetizatzen dituzten irudiekin lotu daitezke. Taldeen bateratze-lanak egiteko edo jarduerak planifikatzeko erabiltzen dira.
- Geroko mailetan, ikusizko oharren bidez apunteak hartzeko eta ikus-entzunezko testuak aztertzeko erabil daiteke, edukien egitura bilatuz eta kontzeptuak eta ideiak marrazkiekin eta testuekin antolatuko dituen ikusizko mapa batean jasoz.

- Adin guztietan, testuak eta irudiak konbinatuko dituzten ikusizko kontakizunak planteatu daitezke. Ikasleen lan-ingurune analogikoetan edo digitaletan, egungo ikus-entzunezko kulturara ohituago dauden ikasle gazteen egungo kulturarekin konektatuz.

Eragina: Informazioa atxikitzea errazten du, irudiak hobeto gordetzen baitira epe luzeko memorian. Pentsamendu bisualak modu emozionalagoan, enpatikoagoan eta zuzenagoan komunikatzeko aukera ematen du. Hizkuntza arrunta iristen ez den lekuetara iristen da.

Adierazpen-ahalmena areagotzen dute, eta komunikazio digitala ahalbidetzen dute, bai hurbileko hezkuntza- komunitatean (familiak, auzoa/herria), bai erabili ohi dituzten sare sozial globaletan. Tresna ahaltsua da eskola-lanaren denbora planifikatzeko eta antolatzeko.

FLIPPED CLASSROOM

Ezaugarriak: Flipped Learning edo alderantzizko ikaskuntza, ikuspegi pedagogiko bat da, non edukien ikaskuntza ikasgelatik kanpo egiten den eta klaseko denbora erabiltzen den konplexutasun handiagoko prozesu kognitiboak garatzea eskatzen duten jarduerak egiteko, ikasleek gehiago parte har dezaten, ikasgelan lankidetzagiroa sortuz

Antolamendua: Ikasleak ikasgaien edukiak etxean eskuratzen dituzten bitartean, askotan propio sortutako bideoen bidez eta ikasgelara gaiari buruzko alde aurreko ezagutzekin iristen da ikasitakoa aplikatzeko.

IKTekin elkarreraginez eta gelakideekin elkarlanean arituz, jarduera parte-hartzaileak proposatzen dira: eztabaidak, arazoaren konponketa,

Irakasleak adi eta prest egon behar du ikasleak planteatutako zalantzak eta galderak erantzuten laguntzeko eta lanari buruzko aldizkako feedback emateko.

Tutoretza-ordu pertsonalizatuak aurreikusi ohi dira, ikasleak aurrera egin duela egiaztatzeko.

Eragina:

- Ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista bihurtzen ditu. Lehen unetik inplikatuak dira, eta erantzukizunak ematen dizkie; beren ezagutza eraikitzeko konpromisoa hartzen dute.
- Denbora gehiago dago zalantzak argitzeko eta ikasgelan ezagutzak finkatzeko. ikasgelan denbora eman dezakete zalantzak argitzen, ulertzeko edo ikasteko zailtasunak konpontzen, eta edukiak banaka eta elkarlanean lantzen.
- Ikasgelako aniztasunari erantzuteko aukera ematen dio. Ikasleek nahi adina denbora eman dezakete edukiak berrikusten, ondo ulertzen dituztela ziurtatzeko.
- Ikaskuntza sakonagoa eta esanguratsuagoa sustatzen du. Irakasleak ikasgelan denbora gehiago eman dezake ezagutzak aztertzea, sortu, ebaluatu eta bizitza errealaera aplikatzeko, ikasleek ikaskuntza iraunkorragoa eta esanguratsuagoa lortzen dute, gizartean moldatzeko baliagarria izango zaiena.
- Ikasleak motibatzen ditu.

BOLUNTARIOTZA

Ezaugarriak: Irakasleak planifikatutako jarduerak dinamizatzen, burutzen eta motibatzen laguntzen dute pertsona bolondresek. Bolondresek ez dute jarduera diseinuan ezta ikasleen ebaluazioan parte

hartzten eta ez dute irakaslearen lana ordezkatzeko. Aniztasunari erantzuteko baliagarriak diren estrategietan parte har dezakete (talde interaktiboak, hizkuntza praktikatzeko saioak, irakuketa saioak...), baita ordutegitik kanpoko jardueretan ere (liburutegi tutorizatuak, errefortzuak)..Laguntza handia behar duten giza taldeetan oso lagungarria da.

Antolamendua: Irakasleak jarduerak antolatu eta bolondresarekin partekatzen dituzten helburuak, jardueraren dinamizazioari buruzko eta bere lanaren espektatibei buruzko informazioa emanaz. Bolondresak jardueraren garapenean parte hartzen du eta dinamizazioaren parte dira. Ebaluazioa: irakasleari dagokio baina bolondresak bere ekarpenak egin ditzake. Bolondresak denbora tarte jakin batean ikasgelan edo bestelako esparruan parte hartzeko konpromisoa hartzen du; konpromisoak alde aurretik argi gelditu behar dira alde guztietarako. Parte hartzea hasi aurretik bolondresak formazioa jaso behar du, bere funtzioa, egikerak eta konfidentzialtasun konpromisoak argituz. Kontrato etiko-pedagogiko moduko zerbait gauzatu daiteke, alde guztien konpromisoak jasota geldituz.

Eragina: Eskola arrakasta eta ikastetxeen elkarbizitza giroa hobetzen laguntzen dute eskola inklusiboaren ikuspegitik. Oso lagungarria da elkarrekintzak berriak eta aberatsagoak eta anitzagoak izateko baita irakasleak ikasleari buruz duen ikuspegian ikuspuntu berria izateko.

5. CURRICULUM AKADEMIKO INKLUSIBOA: Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala

CAST elkarteak (Center for Applied Special Technology) sortutako Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalak (IDU) giza dibertsitatearen ikuspegitik ikasle bakoitzaren ikaskuntzak sendotzen eta aberasteko helburua du bere oinarrian eta hortik ikasle guztiek erraz eskuratzeko curriculum inklusibo bat lantzeko jarraibideak proposatzen ditu. IDUK hasieratik egoera eta gaitasun anitzak kontuan hartuz curriculum eta programazioen diseinua egitea beharrezkotzat jotzen du, berariazko curriculumaren egokitzapenak edo diseinu berezituak egiteko premia murriztuz.

CASTeKo ikertzaileek garun-eremuak komunikatzen dituzten konexio neuronalek osatutako sare konplexuaren barruan hiru garun-azpisare mota daudela ezarri zuten, ikaskuntza-prozesuan nagusiki esku hartzen dutenak eta ikaste prozesuan inplikatzeko, informazioa prozesatzeko eta exekutatzeko zeregin espezifikotan espezializatuta daudenak.

(Rose, 2006; Rose eta Meyer, 2002).

IDUK hezkuntza inklusiboari eta ikasgelako aniztasunaren arretari nagusiki, bi ekarpen egiten dizkie:

1. Desgaitasunen bat duten eta desgaitasunik ez duten ikasleen arteko dikotomia apurtzen da. **Aniztasuna ikasle guztiei aplikatzen zaien kontzeptua** da, maila handiagoan edo txikiagoan garatzen diren gaitasun desberdinak baitituzte, eta, beraz, bakoitzak hobeto ikasten du modu bakar eta desberdinean. Beraz, ikaskuntza lortzeko hainbat aukera eskaintzeak desgaitasunen bat duen ikaslearentzat onuragarria izateaz gain, ikasle bakoitzak hobekien ikasiko duen ~~aukera~~-(modua) aukeratzea ahalbidetzen du.

2. Desgaitasunaren fokua ikaslearengandik materialetara, baliabideetara, eta curriculum-diseinura, bideratzen da. Curriculumak desegokia izango da, ikasle guztiek curriculumak eskuratu ahal izatea eragozten duen neurrian. Curriculumak ikasle guztiak kontuan hartzea, hau da, inklusiboa izatearen ardura, **curriculumak diseinatzen duten pertsonen erantzukizuna da.**

3 printzipioetan antolatutako jarraibide praktikoak eskaintzen ditu eta horien inplementazioak baldintzatuko du aniztasunari erantzuteko modua. **Printzipioek**, neurozientzak ezartzen dituen garunaren espezializazio esparruak oinarri hartuta, ikaskuntza prozesuan eragiten duten 3 alderdi nagusi identifikatzen ditu; printzipio bakoitzari erantzuteko, curriculumean kontuan hartu beharreko estrategia eta aplikatu daitezkeen **jarraibideak** zehazten ditu.

Jarraibideok, ikas-material edo jarduera batek aniztasuna kontuan hartzen duen ala ez, ebaluatzeko adierazle modura ere erabil daitezke.

1. **Inplikaziorako era anitzak eskaintzea:** Osagai emozionala funtsezko elementua da ikaskuntzarako, ikastearen zergatia eta motorra, ikasleak desberdinak baitira ikasteko motibazioari dagokionez. Batzuek bakarrik lan egin nahiago dute, beste batzuek taldean, batzuentzat berrikuntza motibagarria da, beste batzuentzat ohikoa-errutina da motibatzen duena ... Beraz, ez dago inplikatzeko modu bakarria pertsona guztientzat eta aukera anitzak ematea funtsezkoa da.

IDUK 3 jarraibide proposatzen ditu motibazioan eragiteko:

- a. Interesa pizteko aukerak ematea
- b. Esfortzua eta iraunkortasuna mantentzeko aukerak ematea
- c. Auto-erregulatzeko aukerak ematea

2. **Errepresentatzeko modu anitzak eskaintzea:** ikasleak anitzak dira informazioa pertzibitzeko eta ulertzeko moduan, haien gaitasunengatik, haien ezaugarri kulturalengatik, haien hizkuntzagatik, haien zailtasunengatik. Informazio azkarragoa edo modu eraginkorragoan antzeman dezakete ikusmen, entzumen, edo idatzitako baliabideen bidez, kasuan kasu. Ikaskuntzaren transferentzia irudikapen ugari erabiltzen direnean gertatu ohi da. Beraz, ez dago irudikapen-bide egokirik pertsona guztientzat eta aukera anitzak eskaintzea funtsezkoa da.

IDUK printzipio honetan eragiteko 3 jarraibide proposatzen ditu:

- a. Pertzeptziorako aukera anitzak ematea
- b. Hizkuntza, adierazpen matematiko eta sinboloetarako aukerak ematea
- c. Ulermenerako aukerak ematea

3. **Ekintzarako eta adierazpenerako era anitzak eskaintzea:** pertsona bakoitzak bere estrategia eta antolaketa trebetasunak ditu ezagutzen duena adierazteko, eta denak dira baliagarriak. Adierazpena bezalako ekintzak estrategia, antolaketa eta praktika ugari eskatzen ditu, eta horrek ikasleak beraien artean nabarmen desberdinduko dituen arlo bat da.

IDUK 3 jarraibide proposatzen ditu printzipio honetan eragiteko:

- a. Elkarrekintza fisikorako aukerak ematea
- b. Adierazpen eta komunikaziorako aukera anitzak ematea
- c. Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea

Ondorengo taula, CASTek proposatutako IDU printzipioen eta jarraibideen azken bertsioaren itzulpena da.

	Inplikaziorako aukerak ematea ZERGATIK ikasi	Errepresentaziorako aukerak ematea ZER ikasi	Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea NOLA ikasi
Sarbidea izan	Interesa pizteko aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Norbanakoaren aukeraketa eta autonomia optimizatzea. Garrantzia, balioa, eta benekolasuna optimizatzea. Ziurtasun eza eta distrazioa bikiagotzea. 	Pertzepziorako aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Informazioaren aurkezpena eraldatzeko eta pertsonalizatzeko aukerak ematea. Entzuteko informaziorako aukerak ematea. Ikusizko informaziorako aukerak ematea. 	Elkarreraginerako aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Nahigatzeko eta erantzuteko modu anitzak eskaintzea. Laguntzarako teknologia, produktu eta tresnen eskuratzeko optimizatzea.
Erakiki	Esfortuari eta iraunkortasunari eusteko aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Helburuen eta jomugen garrantzia nabarmentzea. Erronkak optimizatzeko eskakizun-maila eta baliabide anitzak eskaintzea. Taldea-izaera eta elkarlana bultzatzea. Feedbacka erabiltzea, lanean maisutasuna lortzeko. 	Hizkuntzetarako eta sinboloetarako aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Hiztegia eta sinboloak argitzea. Egitura eta sintaxia argitzea. Testuak, notazio matematikoak eta sinboloak deskodetzeko erraztasunak ematea. Hizkuntza desberdinen ulermena sustatzea. Idea nagusiak bitarteko anitzen bidez argitzea. 	Adierazteko eta komunikatzeko aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Komunikaziorako bitarteko anitzak erabiltzea. Testuak egituratzeko eta gauzatzeko baliabide anitzak erabiltzea. Praktikarako eta gauzatzeko-lanetarako laguntza mailakatuak duten konpetentziak definitzea.
Baimeratu	Autorregulaziorako aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Motibazioa optimizatzen duten ixaropenetan eta sinismenetan eragitea. Eguneroko bizitzako arazoei aurre egiteko estrategiak eta abilezia pertsonalak ematea. Hausnarketa eta autoebaluazioa garatzea. 	Ulermenerako aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Aurretiko ezagutzak aktibatzea. Ereduak, funtsezko ezaugarriak, ideia nagusiak eta loturak nabarmentzea. Informazioa, irudikatzea eta manipulazioa prozesatzen gidatzea. Memoria, transferentzia eta orokortzea maximizatzea. 	Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea <ul style="list-style-type: none"> Helburuen ezarpenean gidatzea. Estrategien garapenean eta planifikazioan laguntzea. Baliabideen eta informazioaren kudeaketa eratztea. Aurrerapen jarraipena egiteko trebetasuna garatzen laguntzea.
Helburua	Ikasle adituak dira ...		
	Motibatua eta seguruak direnak	Baliabide egokiak aukeratzen dituztenak	Helburuei begira dihardutenak

Iturria: CAST | *Until learning has no limits* udlguidelines.cast.org

Itzulpena: Euskal Herriko Ikastolak

Taula hauetan EKI-DBHn adostutako IDU aldaketak azaltzen dira. Aldaketa bakoitza dagozkion printzipio eta jarraibideekin lotzen da.

OROKORRAK	
EGINDAKO ALDAKETAK	PRINTZIOPIO eta JARRAIBIDEAK
Testu digitalak audioekin lagundu	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	2. Ikur, adierazpen matematiko eta hizkuntzarekiko era askotako aukerak eman
	2.3 Testuak, idazkera matematiko eta sinboloak deskodetzeko erraztasunak ematea.
Itzulpenak egiteko tresnak	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	2. Ikur, adierazpen matematiko eta hizkuntzarekiko era askotako aukerak eman
	2.4 Hizkuntza desberdinen ulermena sustatu.
Kontrastea, hizki mota eta tamaina, pantailaren edukia, irudien tamaina, irudien izenburua eta deskribapena, irakurle digitalak...	III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)
	4. Interakziorako aukerak ematea
	4.1 Nabigatzeko eta erantzuteko modu desberdinak eskaini. 4.2 Laguntzarako teknologia, produktu eta tresnen eskuratzeari optimizatu.
Azalpenak argitu: jardueraren helburua eta zereginean egin beharrekoa lodiz nabarmendu, ulergarritasuna ziurtatu.	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	2. Ikur, adierazpen matematiko eta hizkuntzarekiko era askotako aukerak eman
	2.2 Egitura eta sintaxia argitzea.
	3. Ulermenarekiko aukerak eman.
3.2 Ereduak, funtsezko ezaugarriak, ideia nagusiak eta loturak nabarmentzea	
Irakaslearen gida IDU ikuspegiarekin	
ZEREGINAK	
EGINDAKO ALDAKETAK	PRINTZIOPIO eta JARRAIBIDEAK
Irakurketa erraza	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	2. Ikur, adierazpen matematiko eta hizkuntzarekiko era askotako aukerak eman
	2.2 Egitura eta sintaxia argitzea.
	3. Ulermenarekiko aukerak eman.

	<p>3.2 Ereduak, funtsezko ezaugarriak, ideia nagusiak eta loturak nabarmentzea</p> <p>I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)</p> <p>8. Esfortzuari eta ekimenari eusteko aukerak ematea</p> <p>8.2 Erronkak optimizatzeko eskakizun-maila eta baliabide askotarikoak ematea.</p>
Urratsak esplizitatu	<p>II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)</p> <p>3. Ulermenarekiko aukerak eman.</p> <p>3.3 Informazioa, irudikatzea eta manipulazioa prozesatzen gidatzea</p> <p>III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)</p> <p>6. Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea</p> <p>6.2 Estrategien garapenean eta planifikazioan laguntzea.</p>
Ekintzak nabarmendu	<p>II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)</p> <p>3. Ulermenarekiko aukerak eman.</p> <p>3.2 Ereduak, funtsezko ezaugarriak, ideia nagusiak eta loturak nabarmentzea</p>
Mapa kontzeptualak, eskemak	<p>II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)</p> <p>2. Ikur, adierazpen matematiko eta hizkuntzarekiko era askotako aukerak eman</p> <p>2.2 Egitura eta sintaxia argitzea.</p> <p>3. Ulermenarekiko aukerak eman.</p> <p>3.2 Ereduak, funtsezko ezaugarriak, ideia nagusiak eta loturak nabarmentzea</p> <p>I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)</p> <p>8. Esfortzuari eta ekimenari eusteko aukerak ematea</p> <p>8.2 Erronkak optimizatzeko eskakizun-maila eta baliabide askotarikoak ematea.</p>
Zereginak ebazteko modu anitzak	<p>II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)</p> <p>3. Ulermenarekiko aukerak eman.</p> <p>3.3 Informazioa, irudikatzea eta manipulazioa prozesatzen gidatzea</p> <p>I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)</p> <p>8. Esfortzuari eta ekimenari eusteko aukerak ematea</p> <p>8.2 Erronkak optimizatzeko eskakizun-maila eta baliabide askotarikoak ematea.</p> <p>III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)</p> <p>5. Adierazteko eta komunikatzeko aukerak ematea.</p> <p>5.3 Praktikarako eta gauzatzeko lanetarako laguntza mailakatua duten kompetentziak definitzea.</p>

Informazioa eskaintzeko modu anitzak (transkripzioak, bideoak, audioak, e.)	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	1. Pertzepziorako aukerak eman
	1.2 Entzutezko informaziorako aukerak ematea.
	1.3 Ikusizko informaziorako aukerak ematea.
	I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)
7. Interesa pizteko aukerak ematea	
	7.1 Norbanakoaren aukeraketa eta autonomia optimizatu
Informazioa eraldatu eta pertsonalizatu (bolumena, abiadura, letra tamaina, e.a)	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	1. Pertzepziorako aukerak eman
	1.1 Informazioaren aurkezpena eraldatzeko eta pertsonalizatzeko aukerak ematea.
Jarduera osatu (landutakoa praktikatu, trebatzeko edo aurre ariketak)	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	3. Ulermenarekiko aukerak eman.
	3.4 Memoria, transferentzia eta orokortzea maximizatu.
	III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)
	6. Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea
6.3 Baliabideen eta informazioaren kudeaketa erraztea.	
Aldamiajeari, ereduak eskeini, erantzunen aukerak eskaini (lotzekoak, arrastrapuzkoak)	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	3. Ulermenarekiko aukerak eman.
	3.2 Ereduak, funtsezko ezaugarriak, ideia nagusiak eta loturak nabarmentzea
	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	3. Ulermenarekiko aukerak eman.
	3.3 Informazioa, irudikatzea eta manipulazioa prozesatzen gidatzea
	III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)
	5. Adierazteko eta komunikatzeko aukerak ematea.
	5.2 Testuak egituratzeko eta gauzatzeko askotariko baliabideak erabiltzea.
	6. Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea
	6.1 Helburuen ezarpenean gidatzea.
	I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)
	8. Esfortzuari eta ekimenari eusteko aukerak ematea
8.2 Erronkak optimizatzeko eskakizun-maila eta baliabide askotarikoak ematea.	
Irudien izenburua eta deskribapena	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)
	1. Pertzepziorako aukerak eman
1.3 Ikusizko informaziorako aukerak ematea.	
Informazio iturriak mailakatu	II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)

	<p>3. Ulermenarekiko aukerak eman.</p> <p>3.3 Informazioa, irudikatzea eta manipulazioa prozesatzen gidatzea</p> <p>I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)</p> <p>8. Esfortzuari eta ekimenari eusteko aukerak ematea</p> <p>8.2 Erronkak optimizatzeko eskakizun-maila eta baliabide askotarikoak ematea.</p> <p>III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)</p> <p>5. Adierazteko eta komunikatzeko aukerak ematea.</p> <p>5.3 Praktikorako eta gauzatze-lanetarako laguntza mailakatua duten kompetentziak definitzea.</p>
	<p>II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)</p> <p>2. Ikur, adierazpen matematiko eta hizkuntzarekiko era askotako aukerak eman</p> <p>2.1 Hiztegia eta sinboloak argitzea.</p>
Glosarioa	
	<p>II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)</p> <p>2. Ikur, adierazpen matematiko eta hizkuntzarekiko era askotako aukerak eman</p> <p>2.1 Hiztegia eta sinboloak argitzea.</p>
Hiztegia	
	<p>II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)</p> <p>3. Ulermenarekiko aukerak eman.</p> <p>3.3 Informazioa, irudikatzea eta manipulazioa prozesatzen gidatzea</p> <p>III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)</p> <p>6. Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea</p> <p>6.2 Estrategien garapenean eta planifikazioan laguntzea.</p> <p>I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)</p> <p>9. Autorregulaziorako aukerak ematea</p> <p>9.1 Motibazioa optimizatzen duten itzaropenetan eta sinismenetan eragitea.</p>
Gelditu eta pentsatu (ulermena sakontzeko estrategiak)	
	<p>II. Errepresentaziorako aukerak ematea (ZER ikasi)</p> <p>3. Ulermenarekiko aukerak eman.</p> <p>3.1 Aurretiko ezagutzak aktibatzea.</p>
Aurre ezagutzak aktibatu	
	<p>III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)</p> <p>5. Adierazteko eta komunikatzeko aukerak ematea.</p> <p>5.1 Askotariko komunikazio bitarteko erabiltzea.</p>
Komunikatzeko bitarteko anitzak erabiltzeko aukera eskeini	
	<p>I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)</p> <p>7. Interesa pizteko aukerak ematea</p> <p>7.1 Norbanakoaren aukeraketa eta autonomia optimizatu</p>
Gehiago jakiteko eskainitako iturri osagarriak	

	<p>8. Esfortzuari eta ekimenari eusteko aukerak ematea</p> <p>8.2 Erronkak optimizatzeko eskakizun-maila eta baliabide askotarikoak ematea.</p>
AUTOREGULAZIOAK	
EGINDAKO ALDAKETAK	PRINTZIPIO eta JARRAIBIDEAK
Irizpideak berridatzi eta sekuentziazioa aldatu (autoregulazioa)	<p>I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)</p> <p>9. Autorregulaziorako aukerak ematea</p> <p>9.1 Motibazioa optimizatzen duten itzaropenetan eta sinismenetan eragitea.</p>
	<p>III. Gauzatzeko eta adierazteko aukerak ematea (NOLA ikasi)</p> <p>6. Funtzio exekutiboetarako aukerak ematea</p> <p>6.4 Aurrerapenen jarraipena egiteko trebetasuna garatzen laguntzea.</p> <p>I. Inplikaziorako aukerak ematea (ZERGATIK ikasi)</p> <p>9. Autorregulaziorako aukerak ematea</p> <p>9.3 Hausnarketa autoebaluazioa garatzea.</p>
Autoebaluaziorako jarduerak irizpideka eskaini	

6. IKASLEENGAN ERAGINA DUTEN EGIKERA INKLUSIBO BATZUK

Arestian adierazitako ikuspegiarekin bat eginez, printzipio pedagogiko, arrakasta-gako eta hezkuntza estrategietan oinarrituta, eguneroko hezkuntza praktikan erabilgarriak izan daitezkeen proposamenak jasotzen ditugu jarraian.

- Helburu berberetara iristeko, ezagutza eta konpetentzia lorpen maila desberdinak zehazten ditu, **ebaluazio hezigarria** eginez eta **ebidentzietan** oinarrituz.
- **Bloom** taxonomiaren arabera ebatzen maila anitzak erabiltzen ditu zereginetarako eta ebaluaziorako.
- **Ikasteko estrategiak** esplizitatzea.
- Landutakoaren **aurre ezagupenak**, **berrikuspen** eta **gogorazpenak**. Ideien artean loturak eginez ikasitakoa sendotu.
- Informazio berria **urratsez urrats** aurkeztu, asmoa argituz.
- **Jardunbide gidatuak**, galderak, taldeko argumentazioak, eztabaidak, e.a eginez ikaste esanguratsua bihurtu
- **Ereduak ematea**: ebatzitako egoerak, parafraseatzea, feedbacka, zuzenketek, ebazteko urrats espezifikoak, e.a
- Ikasleei banaka zein taldeka beraien ikaskuntza prozesuari buruzko informazioa eman, aurrera egiten lagunduko dion **feedback** esanguratsuaren bitartez.
- Zeregin konplexuetarako **aldamioak** ematen ditu. aldi baterako laguntza bat da. ereduak, apunteak biltzen dituzten txartelak, egiaztapen-zerrendak, esaldien hasierak eman...
- Ikaskuntza **egiaztatzen** du, ulertzen ari direla ziurtatuz
- Ikasgelako **aniztasuna** identifikatzen du eta **inklusioko** balioak bultzatzen ditu
- Ulertzeko, adierazteko eta motibaziorako **aukerako anitzak** erabili eta eskaintzen ditu (IDU)
- **Pertsona** (ikaslea) **erdigunean** jartzen du, bere ezaugarriekin onartu eta errespetatzen du, hizkuntza inklusiboa erabiltzen du eta norbere sinismenak eta portaerek besteongan duten eraginaz ohartzen da.
- Ikasle guztionganako **itxaropen altuak** ditu.
- **Malgutasuna** (ez da permisibitatea): exigentzi mailarekiko, curriculumarekiko, espektatibekiko, irizpideekiko, epeekiko, e.a
- Bere saioak **planifikatzen** ditu beste irakasleekin lankidetzan: laguntzak, baliabideak, espazioak, denborak, materialak, taldekatzeak, behaketak, e.a
- Helburuaren arabera taldekatze anitzak proposatzen ditu, eta **taldea** ikasteko tresna bezala erabiltzen du.

Oharra: atal hau modu grafikoan agertzea nahiko genuke, infografia modura adibidez. Irakasle baten irudiaren inguruan goian aipatutako ideia bakoitza adierazgarria den irudi batekin adierazita.

ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTOAK

TONY BOOTH eta MEL AINSOW: GUÍA PARA LA EDUCACIÓN INCLUSIVA. INDEX FOR INCLUSION 3. edizio berrikusiaren egokitzapena. 2015

UNESCO: INCLUSIÓN Y EDUCACIÓN: TODOS SIN EXCEPCIÓN. Resumen del informe de seguimiento de la educación en el mundo.2020

FEVAS: ESKOLA INKLUSIBOA <https://fevas.org/eu/guias> 2018

HEZKUNTZA SAILA: ESKOLA INKLUSIBOA PLANA

HEZKUNTZA SAILA: ESKOLA INKLUSIBOA GARATZEKO ESPARRU PLANA 2019-2022

HEZKUNTZA SAILA: JARDUKETA ETA ESTRATEGIA METODOLOGIKO INKLUSIBOAK 2020

HEZKUNTZA SAILA: PROPOSAMEN INKLUSIBOAK HLBP DITUZTEN IKASLEEKIN ESKU-HARTZEA 2020

HEZKUNTZA SAILA: ANIZTASUNARI ERANTZUTTEKO PLANA 2020

EHIKO AHOLKULARI PSIKOPEDAGOGIKOEN ETA ORIENTATZAILEEN MINTEGIA: ANIZTASUN PLANA 2017-18

CAST: PAUTAS SOBRE EL DISEÑO UNIVERSAL PARA EL APRENDIZAJE (DUA). Versión modificada 2018

BOE: LOE, LEY ORGÁNICA DE EDUCACIÓN 2/2006, de 3 DE MAYO

BOE: LOMCE, LEY ORGÁNICA PARA LA MEJORA DE LA CALIDAD EDUCATIVA, 8/2013, DE 9 DE DICIEMBRE

BOE: LOMLOE, LEY ORGÁNICA DE EDUCACIÓN 3/2020, DE 29 DE DICIEMBRE, POR LA QUE SE MODIFICA LA LEY ORGÁNICA 2/2006, DEL 3 DE MAYO

2016/01/15ko EHKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA: HEZIBERRI

OHARRA: ERREFERENTZIAK NOLA ZEHAZTU BEHAR DA MODU EGOKIAN?



Ikasmaterial hau lan kolektiboa da, Euskal Herriko Ikastolak elkartearen koordinaziopean egina. Hainbat profesionalen ekarpenek diziplina arteko lan bateratua osatu dute. Ekarpen pertsonal horietatik sortze-lan bakar bat moldatu eta gauzatu du talde honek.

[Ikastolen Elkarteko lan-taldea](#)

Leire Burdain eta Bego Gordillo

[Argitaraldia](#)

2023ko uztaila



Euskal Herriko Ikastolak
www.ikastola.eus